

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Legutioko kirol elkarteentzako dirulaguntzen deialdiaren laburpena

BDNS (Identif.): 842824.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/842824>.

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorri, dirulaguntza deialdiaren laburpena argitaratzen da; dena den, horren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) eta Legutioko Udalaren web orrian (<http://www.legutio.eus>) kontsultatu ahal izango da.

Xedea

Behar den bezala legeztaturik dauden elkarte eta klubek udalerrriaren esparruan sustatutako edo udalerrirako interesgarriak izan daitezkeen 2025erako kirol jarduerak eragindako gastuak finantzatzen laguntzea, aurrekontuaren mugen barruan.

Onuradunak

Irabazteko xederik gabeko elkarte eta klubak izan ahalko dira dirulaguntza hauen onuradunak, baldin eta sozietatearen egoitza Legution badaukate eta legeak ezarritakoaren arabera eratu eta erregistratu badira. 2025erako udal honen dirulaguntza izenduna jaso duten elkarte eta klubek 2025eko uztailetik abendura bitartean (biak barne) soilik justifikatu ahal izango dituzte dirulaguntza horren gastuak.

Ezin izango dira dirulaguntzaren onuradun izan Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan horri dagokionez aipatzen dituen egoeretan dauden eskatzaileak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Kirol klubek edo elkarteek proposatutako kirol programen barruko jardueren antolaketatik sortutako gastuak, haiek kokatuta dauden udalerrri edo populazioari bideratuta badaude eta 2025. urtean garatu beharreko egutegi zehatza badaukate.

Ez da diruz lagunduko (hots, diruz lagundutako gastuaren kalkulutik aparte geratuko da) jatekoarekin, edatekoarekin eta garraioarekin (entrenamenduetara edo kirol probetara joan-etorriak) loturiko gastua, ezta Legutioko Udaleko Kultura eta Kirol Batzordeak halakotzat jotzen dituen gastu guztiak ere.

Dirulaguntza emateko irizpideak

Dirulaguntzak ematea borondatezkoa izango da; hortaz, ez da inolako betebeharririk izango deialdi honetako oinarriak betetzen dituzten eskaera guztiei dirulaguntza emateko. Hauek izango dira dirulaguntzak emateko balioespen irizpideak:

a) Zer interes publiko edo sozial duen jarduera proiektuak edo programak, baita zer interes duten ezarritako helburuek ere.

b) Udalerriko herrietan eragina duten eta bertako kultura eta kirol jarduerak sustatzen dituzten proiektu edo jarduerak izatea.

c) Entitate eskatzailearen egonkortasuna eta kaudimena, eta aurkeztutako programaren jarraitutasuna.

d) Erakunde sustatzailekoak ez diren pertsonen kideek parte hartzen duten baldintza beretan parte hartu ahal izatea proiektuaren edo programaren xede diren jardueretan.

e) Programa dirulaguntzaren bitartez gauzatzen dela bermatzeko aurkeztu diren baliabideak (azpiegitura, materialak eta baliabide pertsonalak).

f) Programa edo jarduerak euskararen zabalkundean laguntzea.

Zenbatekoa

Programaren kostuaren eta haren zati bat finantzatzeko dauden baliabideen arabera izango dira dirulaguntzak. Garrantzitsua da eta kontuan hartuko da sustatzaileak baliabide propioak sortu ahal izatea edo baliabideak beste administrazio publiko batzuen bitartez lortu ahal izatea.

Dirulaguntzen zenbateko osoa 2025erako esleitutako aurrekontu mugen arabera izango da.

Kirol elkarte edo klub bakoitzari gehienez ere 9.000,00 euroko dirulaguntza emango zaio.

Eskaerak eta aurkezteko epea eta tokia

Dirulaguntza eskaerak Legutioko Udalaren egoitza elektronikoan (www.legutio.eus) aurkeztu behar dira.

Eskaerak eta dokumentu osagarriak aurkezteko, 30 egun naturaleko epea izango da, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskaera orrian edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan akatsen bat badago edo agiri horiek osatu gabe badaude, hamar eguneko epea emango zaie interesdunei antzemandako akatsak zuzentzeko, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe horren ondoren akatsak zuzendu ez badira, eskaeran atzera egin dutela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da.

Elkarte bakoitzak eskaera bakarra aurkeztu ahal izango du.

Legutio, 2025eko ekainaren 27a

Alkatea

NEREA BENGÓA GARCÍA DE CORTÁZAR